DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.
COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAU-RAKO MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNA ETA TAILERREKO LAGUNTZAILEAREN LAN POLTSAK SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.

- **1.2 FASEAREN EMAITZA (PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOA).**
- **3. FASEA EGITEKO DEIALDIA (ELKARRIZKETA ETA ANALISIS PERTSONALA).**
- **4. FASEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA (MERITUEN BALORAZIOA).**

Lehenengo.- Mekanikari-Elektrikari Balioaniztuna eta Tailerreko Laguntzailearen Lan Poltsa osatzeko hautaketa prozesuaren **1.2. Faseari - Proba Profesional Praktikoa dagozkion emaitzak** argitaratzen dira:

- **1.ERANSKINA: MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNA**
- **2.ERANSKINA: TAILERREKO LAGUNTZAILEA**

Bigarren.- Interesatuek egokitzat hartzen dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte 3 lanegunez, zerrenda argitaratu den eguna barne (**2026ko azaroaren 10, 11 eta 12an**), horretarako prestatutako inprimakia bete eta aurkeztuta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, Fernando Sasiain kalea 7, 9:00etatik 13:00ak arte.

Langileak Hautatzeko Batzordeak ebatziko ditu alegazioak, eta behin ebatzita, behin-betiko emaitzak argitaratuko ditu www.dbus.eus web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, 2026ko azaroaren 13etiik aurrera.

Hirugarren.- Aurreko proban GAI izan diren hautagaiei dei egiten zaie 3. Fasea - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egitera joan daitezen

2026ko azaroaren 17 eta 19an izango da, OTEIC Taldearen bulegoetan, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia. Esleitutako txanda ikusi 3. ERANSKINEAN.

Oinarrieta aurreikusitakoaren arabera, Hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horrez gain banaka edota taldeka beste proba batzuk ere egingo zaizkie, haien ezaugarri pertsonalak eta gaitasunak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen ala ez jakiteko.

Fase honetan lortu beharreko gutxieneko nota ebaluatutako 20 puntuetatik 12koa da Mekanikari-Elektrikari Balioaniztunaren kasuan, eta ebaluatutako 30 puntuetatik 18koa Tailerreko Laguntzailearen kasuan.

Hautagaiek jatorrizko NAN, pasaportea edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkezten, ezin izango dituzte probak egin.

Fase bakoitzera joateko deia hautagai guztiei batera egingo zaie. Hautaketa Batzordeak deitutako probara adierazitako lekuan, egunean eta orduan agertzen ez diren hautagaiak Hautaketa Prozesutik kanpo gelditutko dira behin betiko.

Laugarren.- 4.Faseari dagokion dokumentazioa aurkeztea (Merituen Balorazioa).

Hautagaiek Merituen Balorazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute (lan esperientzia profesionala), 3. Fasea - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egitera deitzen zaien egunean. Dokumentazioa aurkeztu beharko dute **baldin eta onarpen-prozesurako aurkeztutakoaz gain informazio gehiago badute bakarrik.**

Gogorarazten da, Deiadiaren oinarrien arabera, Gizarte Segurantzak egindako egiaztagiriekin edo/eta enpresa ziurtagiriekin egiaztatuko dela lan-esperientzia profesionala.

Gogorarazten da Langileak Hautatzeko Batzordeak egiaztatu ahal izango duela hautagaiek Hautaketa Prozesuan zehar aitortutako dokumentazioa/emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango dituela informazio faltsua aurkeztu duten hautagaiak.

Halaber, hautaketa-prozesuan zehar, onartutako hautagaien zerrenda eta euskara mailaren zerrenda egiteko erabili den jatorrizko dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaie hautagaiei, egiazta dadin.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide honetan argitaratuko da:https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/

Stua.: Langileak Hautatzeko Batzordea
Donostia, 2026ko azaroak 10

1.ERANSKINA:
1.2 Fasearen - Proba Profesional Praktikoaren emaitza.

MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNA

1.1 FASEAREN EMAITZA - PROBA PROFESIONAL TEORIKOA:

IDENTIFIKAZIO KODEA	1.2 FASEAREN PUNTUAZIOA (gutxienez 21/30 puntu)	KALIFIKAZIOA
MEOA26-002	28,50	GAI
MEOA26-003	26,40	GAI
MEOA26-005	22,20	GAI
MEOA26-009	21,60	GAI
MEOA26-012	21,00	GAI

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.
COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

2.ERANSKINA:
1.1 Fasearen - Proba Profesional Teorikoa eta 2.Fasearen -Proba Psikoteknikoak eta Gaitasunekoen emaitza.

TAILERREKO LAGUNTZAILEA

1.1 FASEAREN EMAITZA - PROBA PROFESIONAL TEORIKOA:

IDENTIFIKAZIO KODEA	1.2 FASEAREN PUNTUAZIOA (gutxienez 12,5/25 puntu)	KALIFIKAZIOA
MEOA26-014	23,00	GAI

3.ERANSKINA:

3.Fasea – Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egiteko deialdia, OTEIC Taldearen bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia)

IDENTIFIKAZIO KODEA	EGUNA	ORDUA
MEOA26-002	17/11/2026	16:30
MEOA26-003	17/11/2026	17:15
MEOA26-005	17/11/2026	18:00
MEOA26-009	19/11/2026	16:00
MEOA26-012	19/11/2026	16:45
MEOA26-014	19/11/2026	17:30